

**[b]**

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

637. zkia.

XV. urtea

2007ko abenduaren 14a

Ane Perez: Pirritx eta Porrotxen saioko protagonista

# Iribarrea, minbiziaren kontrako sendagai



# Chevrolet bat nahi baduzu, orain errazagoa da GIAUTOri esker. Pasa mezua!



Promozio honen balioa, 07-12-31 baino lehenago matrikulatutako Chevrolet automobil guztientzako da.

## Giauto

**EIBAR**  
Otaola, 27  
Tlf: 943 202 500  
clientes@giauto.es

**OLABERRIA**  
Karabi Ind. z/g  
Tlf: 943 885 150  
www.giauto.es



## ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak! Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

**ICFIS**

ICF 511 (80x10x80) cm 485 € 30.970 pta  
 ICF 411 (80x10x80) cm 550 € 38.450 pta  
 ICF 391 (80x11x80) cm 510 € 31.770 pta  
 ICF 271 (80x8x80) cm 365 € 41.965 pta

**LYNX**

1.700 X 600 X 600 mm

A Salkapen energetikoa

**HOZKAILUA 4FE-0E41**  
295 € 88.280 pta

**aspes**

1.000 l/min 5 kgr.

A Salkapen energetikoa

**GARBIGAILUA LA-110**  
305 € 89.935 pta

**SIEMENS**

1.200 b/min 7kg

A Salkapen energetikoa

**GARBIGAILUA E12-17**  
425 € 79.975 pta

**aspes**

**LABEA BITROZERAMIKA 5TA1410**  
335 € 88.940 pta

LABEA eta BITROZERAMIKA INSTALATUTA

**TELEBISTA PHILIPS**

LTD (TDT) INTEGRATUA  
LCD 26" PFL5622D  
595 € 88.265 pta  
 LCD 42" PFL5622D  
1.075 € 175.050 pta

**TELEBISTA SANYO**

LTD (TDT) INTEGRATUA  
LCD 26" CE26LD81 - C  
650 € 108.890 pta  
 LCD 32" CE32LD81 - C  
685 € 114.295 pta

**"VERO" MAHAIA**

110x70 cm,  
zabalgarria 160x70 cm-rr  
450 € 75.150 pta

**Fagor Eko-igorle elektrikoak**

**BERO URDINA, IZUGARRIZKO AURREZKIA**

	ED	E
(810x1.060x55) mm	370 €	345 €
(810x700x55) mm	330 €	310 €
(810x700x55) mm	295 €	270 €
(810x700x55) mm	255 €	230 €
(810x490x55) mm	215 €	195 €

ED: Elektroniko digitala  
E: Elektroniko, ezuzkoa

Eusko Enpresen eratorriak sartzen dira bidez bezeroen eratorriekin, eratorriak eratorriak.

A >>>> 70%  
 A >>> 45%  
 B >>> 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**  
 Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
 Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide polgonoan 3, Roneo ondoan.

Kateide polgonoan 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Fax: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOZETAN ZABALIK

**Elgoibarretik 15 minutura, autopista alboan!**



AINHOA MENDIBIL

Ez nago ziur, baina jada izango dira hiru urte tarte honetan lehen hitzak idatzi genituela ezta Amaia?

Gogoratzen al duzu? Kondoiak, izarak, eta estalirik gabeko berbak aipatzen genituen. Gauzak ziren moduan kontatuko genituela. Ez guztiak, baina batzuk behintzat.

Pentsatzen jarri naiz. Gustatuko litzaidake parean izatea idatzi ditugun testu guztiak. Lehenengotik hasi, eta bukaeraraino. Baina beno.

Bada gauza bat, hasi ginenetik aldatu ez dena. Berandu ibiltzea gustuko dut nik itxuraz. Eta badakit zoratu egin zaitudala sarritan.

Oraingo honetan ere, ezin ba gutxia-gorako izan. Denbora pasa da, eta iritsi da gure azkena. Badirudi izan behar lukeela testu ona. Edukiz bete. Indartsua. Zer esan handikoa.

Baina ezin, Amaia. Azkenerako, indar gabe geratu ote naiz? Gustura itxiko dut ordenagailuko BARREN karpeta. Itxuraz, esan beharreko nituen denak esanda geratu naiz eta. Gustura jardun dut. Hemen-txe ezagutu genuen elkar, paper artean, kalean komentatu ditugu elkarri idatzitakoak, eta kalean entzun ditugu jasotako kritikak. Bada horrela, ez daukat ezer esateko.

Eskerrikasko zuri Amaia, eta beste denoi. Paper artetik bagoaz, baina elkar ikusiko dugu kalean!

## ZOZOAK BELEARI...



AMAIA GORROTXATEGI

Ba bai, Ainhoa, oso gogoan dut lehenengo aldia, xuabea izan zen, gogotsua. Beldurra ere pasa nuen, ia mina egiteraino iristen den horietakoa, gaizki egingo nuelakoan nengoelako, lagunaren parera iritsiko ez nintzelakoan. Baina ez zen horrela izan, polita izan zen oso polita.

Gaur azkena da, eta ez du lehenengo aldiaren zirrara berbera sortzen, esperientziak irrika jaten duelako izango da agian.

Tristezia sortzen du. Letra artean maitatzera iritsi naizenarekin berriz ez naizelako jolasean ibiliko. Agur esateko ordua iritsi delako.

Tarte honetan lehenengo aldiz idaztean ume izateari utzi zion honek mesilako tiraderan utzi duen agur gutunean zera idatzi du: "Eskerrik asko inork baino lehen gure hitzak irakurri dituen amari, hitz batzuek ulertu ez arren, hurrengo hilabetean ere tarte hau irakurri duten euskaldun berriei, hitzen esanahia ulertu arren askotan zentzua hartu ez dieten lagunei, Sallobenteko jende jakintsuari, larunbat gauetako kritiko literarioei, beti berandu baina amatxo guztiz haserretu aurretik kabira etortzen zaren zozo horri eta zozoa eta belea hiru urtetan, erori gabe, lainoen artean hegan mantentzea ahalbidetu duzuen guztioi. Eskerrik asko zuri. Eskerrik asko denoi".

«Esan beharrekoak esanda geratu naiz. Gustura jardun dut»

AINHOA

«Gaur azkena da, eta ez du lehen aldiaren zirrara bera sortzen»

AMAIA



AZKENA ESAN BEHAR DENA EZ AURRETIK ESAN



Esaera zaharra

## Eliza

Maite Vallejo naiz eta nire eliza amaren irudia azaldu nahi nuke, nire iritzia emanez. Azken alean, "Dotriña" izenpetutako lerro batzuk irakurri nituen eta horren gainean nik ere lerro batzuk idatzi nahi ditut. Ados nago nire lagun maitea den Nikok esandako gauza batzuekin. Adibidez, ez dela Elizara joan behar pertsona ona izateko, Elizara joan ez arren pertsona ona izan daitekeela... Hori bai, baina mesedez, besteei entzuten jakin, eta barkatu, baina hori ez duela Elizak erakusten ez da egia. Nik nire iritzia azaldu nahi dut: era desberdin eta pentsamolde desberdinetakoak gara denok. Eta hori horrela dela jakinik, errespetu handia azaldu nahi diet denei, eta hala nahi nuke hau irakurtzean ere, errespetu handia izatea nirekin. Umetatik bizi dut fedea. Nire anaia Imanol 26 urtekin hil zenean nire barrena esnatu zen eta gurasoengandik jasotako fede hazia hazten hasi zen. Eliza amak erakutsitako irakurgaietatik, hau da, Jaunaren Hitza Bibliatik (beti eme egonik) ikasi dut pertsonak errespetatzen, onartzen, entzuten, barkatzen, maitatzen eta behar duenari laguntza eskaintzen. Fededun naizelako eta sentitzen naizelako, eta hori dena, nire ama Elizak erakutsi didalako.

MAITE VALLEJO

## Bologna geldituko dugu!

Europatik eraso berri bat datorkio euskal ikasleriari eta beraz gauzatzeko aliatu ezin hobeak bilatu ditu PNVren UPVko

Juan Ignacio Perez errektoreak. Zer da Bologna? Zer dakarkigu bere aplikazioak? Bologna Europatik datorren hezkuntza legea da, Unibertsitatei eragiten dien lege berria, kapitalismoaren aplikazio gordina. Euskal Herriari herri bezala erantzuten ez dion unibertsitate elitista bat sorraraziko duen legea. Bolognarekin orain arteko klase sistemak aldatuko dira. Gaur egun ikasi eta lan egitea ahalbidetzen duen hezkuntza sistema daukagu, izan ere, saldu nahi diguten publikotasunetik urrun, diplomatura bat ikasi ahal izateko kostu ekonomikoa lehengo 3.500.000 pta. ingurukoa da eta horri aurre egiteko ikasle gehienek lan egin behar izaten dute.

Inposatu nahi diguten lege honekin karreraren urte kopurua igotzera doaz. Klase guztiak derrigorrezkoak izateaz gain, egun osoan zehar ikasgelan edukiko gaituen sistema da (goiz eta arratsalde), lan kopurua handitu... horrek kostu ekonomikoa handitu egingo du eta gainera, lan eta ikasi egiteko aukerarik ez digu emango.

Unibertsitatea pribatizatzen ari dira. Cambridge berria sortu nahi dute Euskal Herrian. Neoliberalismoaren aurpegi beltzena aplikatu eta funtsezkoa den hezkuntza eskubidea gure muturren aurrean lapurtu. Ikastea gutxi batzuen luxu bihurtu nahi dute, klase sozialen bereizketa gero eta handiagoa izatea bermatuz. Hori gutxi balitz, mugikortasuna saldu nahi digute aurrerapauso bezala. Lehenengo urtea lbaetan eta bigarrena Italian. Baina zer dakar horrek? Karrerak homogeneizatzen ari dira eta horrek euskal Curriculum ga-

zatzea ezinezko bihurtzen du, Euskal Herriko kultura, historia, arkitektura... ez ikastea dakar. Eta zer esanik ez gaur karrera osoa euskaraz egitea ezinezko zaigun honetan, Bolognarekin utopia izango da, ingelesak indarra hartuko baitu, mugikortasuna ahalbidetzeko. Herriaren izaera eta sentimendua deuseztatuz ikasle homogeneoak sortu nahi dituzte, norberaren herriaren eza-gutzarik gabeak eta horretarako duten armarik handiena erabiltzen ari dira: hezkuntza. Proiektua gazte akritikoak sortuz borobildu nahi dute eta guztia isilpean daramate. Urteak daramatzagu Bolognari ezetz esaten, euskal ikasleria kalera irten da behin baino gehiagotan baina borroka honetan ez gaude bakarrik. Horren adibide da 2006ko martxoan Bakaiakun (Nafarroa) sortutako Europako ikasle foroa. Europako txoko guztietako ikasleak bildu ginen, ikuspuntu eta esperientzia desberdinak konpartitu eta prozesuari eman beharreko erantzuna adosteko. Proiektu aberasgarri horrek Europako herrietako egoera eta ikasle mugimenduak ezagutzeko aukera eman digu. Adibidez, Grezian antolatuz eta borrokatuz Bologna gelditzea lortu dute, besteoi ikasle borroka lortuko dugula erakutsiz. Europaren eraikuntza neoliberalak suntsituko dugu, kapitalismo basatienak ere ezingo du gurekin eta akritiko eta sumiso nahi gaituzten honetan, inoiz baino ozenago esango diegu ezetz.

Euskal ikasleria abenduaren 20an Leioara! Bologna geldituko dugu!

IKASLE ABERTZALEAK



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRIA  
X. LEHIAK. E. P. 2013

**ZUZENDARIA:** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Asier Orbea, Oier Narbaiza, Andoni Iturbe **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZALEA** Zalaa Amaiz **KOLABORATZALEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Jon Eugi, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Itigo Otaño, Ibai Portu, Oihana Tarragual, Unai Villena **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 ISSN 1139-1855



## KEXAK

• **Jausoro parkeko trenak oso arriskutsua da umeentzako:** "Jausoro parkean dagoen egurrezko trenak egoera txarrean dago. Burdinezko punta arriskutsuak dauzka eta edozein egunetan umeren batek mina hartuko du. Trenak urte asko ditu, parkea egin zutenetik hortxe dago. Eurria, elurra eta beroa jasan ditu urte hauetan guztietan eta egurrak ez du hori guztia aguantatzen. Tren hori aldatzeko unea iritsi dela iruditzen zait".



• **Arreiture Instituto aurreko asfaltoa egoera txarrean dago:** "San Roke auzoan, Arreiture Instituto aurreko kalean, asfaltoa egoera oso txarrean dago. Dena piztatuta dago aspalditik, eta inork ez du konpontzeko asmorik erakutsi. Azpiko aldean garajeak dauka eta oso arriskutsu dagoela iruditzen zaigu. Ezer gertatu aurretik konpondu egin beharko litzatekeela iruditzen zaigu".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [baren@elgoibarkoizarra.com](mailto:baren@elgoibarkoizarra.com)  
Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12



• **San Roke eta Basarte arteko espaloi gainean aparkatzen du jendeak autoa:** "San Rokeko kale berriatik Basarte auzora bitartean hiru edo lau metro zabalera duen espaloi handi bat dago eta bertan, egunero-egunero lau edo bost auto egoten dira aparkatuta. Espaloi handia da, baina hala ere, pasatzeko lekurik ez da egoten. Udaltzainak sarriago joan beharko lirateke ingurune horretara eta isunak jarri, bestela egoera ez da sekula aldatuko".



Elgoibarko  
Udala



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





## URRUZUNIOREN *Luma*

### Katamalo

Gasteizko ilunabar hotza txamarra, bufanda eta eskularruz jantzita. Kutxi ia biluzik, hutsik, Perral beteta, jendez gainezka.

Taberna beteta badago ere, denontzako tokia dago. Gero eta jende gehiago hasi da hurbiltzen eta musikariek ere prestazeari ekin diote. Laster hurbilduko dira "katamaloak", laster hartuko du hitza musikak eta berarekin batera poesiak.

"Baldintza bakarra dago: ez dezala mikrofonoak agindu", Gotzon Barandiaran poeta gaztearen hitzak izan dira horiek, giroa berotzen hasi da.

Eta hasi da Katamaloren kontzertua; hasi dira eurak daukaten guztia ematen eta gu jasotzen, hasi gara geu ere duguna ematen eta eurak jasotzen. Sormenak mugarik ez duela erakutsi dute, sortzaileak badakiela gu harrapatzen. Direna izaten hasi direnean, katamaloa (mendebaldeko hizkeran, kareta) kendu du-te eta benetan gozatu egin dugu eurekin.

Gasteizko gau hotza poesia eta musikaz jantzita. Ez txamarra, ez bufanda eta ez eskularru. Nahikoa izan dira katamaloak giroa berotzeko.

*Ane Odria*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### MARIA ISABEL AIZPURUA

BIDEZKO MERKATARITZA  
DENDAKO SALTZAILEA

• **Merkataritza bidezkoa noiztik da?**

Gure dendan betidanik.

• **Txinatarren produktuak merkeagoak dira, baina bidezkoa da haien salerosketa?**

Ez du haiekin zerikusirik. Mundu osoan zabaltzen ari dira. Gure produktuak ez dira merkeak, hirugarren munduko ekoizleei prezio onean ordaintzen zaielako.

• **Zer duzue salgai?**

Denetarik, batez ere janaria. Gabonetan artisautzako gauzak ditugu.

• **Zer lortu nahi duzue bidezko merkataritzarekin?**

Nahi dugu jendea produktu horiek erostea ohitu dadin.

• **Karitate kontua ez dela aipatu behar da oraindik?**

Hori da. Bidezkoa da, zuzena; ez karitate kontua.

• **Kontzientziarik badago herrian?**

Bai, badaramatzagu bi edo hiru urte hilean behin irekitzen eta bezeroak baditugu.

• **Gabonetan gehiago saltzen da?**

Egun gehiagotan dugu denda irekirik eta opariak ere saltzen dira.


• **Dendako zer oparituko zenuke?**

Oso jaiotza politak daude, buztinez egindakoak.

12.298 bisita



13.845 bisita



## [AKORDATZEN NAIZ]



**MIREN VALLEJO**

1923an jaioa

### «Gabonak, jai haundixak!»

**G**ure urtebetetzia ospatzen dugun bezela, ospakizun handixaguarekin ospatu biharko genduke, Gabon eguneko jaiotzarekin, Jesusen jaiotza. Ez dakit konturatzzen geran zer ospatzen dogun. Jai hauetan opa dizuet nere zorionik haundixena, bai hemen bizi zeratenoi eta baita kanpua zaudeten guztixeri. Seguru nago BARRENen bitartez herri-

xan bizi zeratela pixka bat. Aspaldi herrixa ikusi ez dozenok... zelako adaketia! Oso baztar poliitak jarri diitue, eta eliza aurria amaitzen debenian, Gipuzkoako plazarik edarrena izango da.

Bittartian, ondo igaro jai hauek eta izan deizuela urte berri on eta pake-tsua. Danok daukaguz gure pozak eta atsekabiak, baiña aurrera. Zorionak!



## [GURE BERBAK]

### Morfologia (12): Bizidunak

Bizidunen deklinabidia izando dogu gaurkuan hizpide. Nola deklinatzen dira pertsonak eta pertsona-izenak Elgoibarren? Alegia, zeinengana, zeinengandik, eta holako formak erabiltzen dira?

Egixa dana da ez dirala gehixegi erabiltzen gure artian. Izan ere, murizketa eta desgaste haundixa gertatu da forma hauen erabilleran. Oso arrunta da beste kasu-marka batzuk (bizigabienak) ordezkatzia bizidunenak: bizidunenak gehixegi erabili ez, eta beste forma batzuek bete izan diituen hárek lagatako hutsuniak:

- *Soziatibua (NOREKIN): nerekin konfiantza haundixa dauka.*
- *Genitibua (NOREN): medikuarenera, amarena (amarenera).*
- *Postposiziua: -ren partetik*

Esan bihar da, gaiñera, bizidunen forma horrek erabiltzen diranian ere, fonetikoki oso desgastatuta erabiltzen dirala: bokal arteko -g- ez da ixia ahoskatu ere egitten, eta, horren ondorioz, alkarren onduan gertatzen diran bi bokalak askotan bat egitten debe, bokal luzia batzuetan. Hona adibide batzuk:

*Mutil asko haréna juten giñuazen.*

*Medikuana juan nitzan.*

*Guregandikan gauza gitxi ikesiko dezu. Kalian, bai*

Pluralian, jakiña da gitxixago erabiltzen dirala bizidunen formak, eta, hortaz, erabilera are eta murritzagua debe bizidunen formak:

*Neskatara Elosura juten giñuazen.*

*Lagunetara nixe.*

*Jesus Mari Makazaga*



## ESKERTZA

2007ko azaroaren 22an hil zen

**Gregoria Elkoru-Irribegarrak**ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ANE PEREZ, MINBIZIA DUEN GAZTEA

## “JAKIN EGIN BEHAR DUZU DAUKAZUNAREKIN BIZITZEN”

*Energia eta bizipoz ikaragarria transmititzen du Anek. Hamazazpi urte ditu eta orain dela lau diagnostikatu zioten ohi-koa ez den minibi mota bat. Astelehenean egin genion elkarrizketa eta egun horretan operatzeko ospitaleratu behar bazuten ere, ilusioz eta itxaropentsu hitz egin zigun. Gainera, familiari, lagunei, ospitaleko langileei eta Aspanovas elkarte-ari eskerrak eman zizkien. Eta, zelan ez, ospitalean hainbeste irifarre oparitu dizkioten Piritx eta Porrotx pailazoeri.*

### ► Noiz eta zelan enteratu zinen gaixorik zinela?

Orain dela lau urte. Ni hasi nintzen tri-pako minarekin eta botaka. Banindoa bi aste gastroenteritisarekin bezala. Baina iritsi zen momentu bat kristoren tripako minekin eta super zorabiatuta nengoena eta hor hasi ginen anbulatoriora joaten eta Mendarora, frogak egitera. Mendarotik Donostiara bidali gintuzten, beste froga batzuk egitera. Eta hilebetean esan ziguten Donostiara joan behar genuela. Froga pila bat... eta han esan zidaten minbizia neukala eta kimioterapia emango zidate-la.

### ► Hori onartzea ez da txantxa, batez ere adin horrekin.

Nik hasieran ez nekien zer zen minbizia, ez ezer. Hamahiru urte nituen. Zorionez gure familian ez da egon horrelakorik eta nik ez nekien zer zen minbizia, ez kimioa. Orduan gero azkenean esaten dizute kimioarekin ilea jausi egingo zaizula eta esplikazio batzuk... Poliki-poliki, bizitzen joaten zara. Medikuei esker eta familiari es-

ker eta alboan dituzun pertsoneri esker jotzen zara erreakzionatzen eta konturatzen zer den daukazuna.

### ► Lau urte pasatu dira.

Lau urte joan gara horrela. Nire minbizi mota ez da ematen kasu askotan eta ume-etan oso arraroa da. Bakarrik ni nago Euskadin, nire adinarekin. Horregatik ere tratamendu aldetik zer erabili ez dago idatzita. Medikuek uste duten kimioak eman dizkirate eta bata bestearekin nahastatzen joan dira, probatzen-probatzen... Eduki ditut momentu onak eta txarrak. Orain dela urtebete ez nengoen nire onenetan, egia esanda, ez zuten asko ematen... baina azkenean tratamendu bati esker eta eurak egindako nahasketa bati esker, aurrea jarraitu genuen. Gainera bost autotransplante egin dizkirate...

### ► Zer da hori?

Zure zelula amak atera egiten dizkizute, berez ez daudenak gaixorik, eta izoztu egiten dituzte. Eta bitartean zuri ematen dizute kimio bat oso fuertea, uzten dizuna zeroan, defentsarik gabe. Eta gero egoten zara bi egun edo, eta hirugarrenean hasten dira zelula izoztuak sartzen eta gero horrek laguntzen dizu erremontatzen.

### ► Zelan zaude orain?

Justu gaur ospitaleratuko naiz. Bihar operatu egingo naute. Baina gogoz nago, animatuta. Pixkat nerbiosa, azkenean bost aldiz operatu banaute ere, inoiz ez zara ohi-tzen. Bost hilabete hauetan bizitza





kalitate super ona eduki dut. Eta ibili naiz lagunekin bizitza normala egiten. Orain nahiko ondo nago. Konturatzen zara bizi behar dela eguna, eta ez iraganean pentsatzen egon. Momentua dela inportante-ena eta azkenean aurrera egin behar dela. Jende askok galdetzen dizu ea nola ahal duzun aurrera egin. Eta ez da hori: aurrera egin behar duzu besterik ez zailakoa gelditzen.

#### ► **Eta bada umerik minbiziarekin?**

Jendeak ez daki ondo. Gero eta gehiago. Eta pena da. Jendeak minbizia entzun eta "que fuerte, hil egingo da", pentsatzen du, eta ez da horrela. Azkenean minbizia gaixotasuna da eta nahi duzun guztia, baina aurrera egin behar da. Tratamendua badago, eta urteak pasatu ahala gero eta tratamendu hobeak ari dira sortzen. Ni egon naiz orain arte bost hilabetez kimiorik hartu gabe, ondo egon naiz eta. Eta ordutik hona bost tratamendu gehiago atera dituzte. Horri ere eskerrak.

**«Eguna bizi  
egin behar dela  
konturatzen  
zara»**

#### ► **Animoz beteta ikusten zaizu. Kasu guztietan ez da horrela izaten...**

Egunak daude. Denboraldiak. Bizitza normalean ere, gaixorik egon gabe, zuk badituzu egunak tristeago edo hobeto... Gaixorik zaudenean gehiago nabarmetzen dira. Baina azkenean jakin egin behar duzu daukazunarekin bizitzen. Egun txarrak eta onak daude. Lehenengo gauza: onartu egin behar da. Ez baduzu onartzen, jai daukazu.

#### ► **Zer moduz lagunekin?**

Hasieran kosta egiten da, bai eurei eta bai niri. Ilea erortzen zaizula, zapiarekin... Nik hasieran ez nuen aitortzen, ez nuen asimilatu. Gogoratzen naiz behin lagunak etorri zirela eta galdetu zidaten ea minbizirik nuen. "Bai zera, bai zera, nik ez daukat. Eduki dut zelula txar bat eta ken-

du didate". Hamahiru urte nituen, ez nekien oso ondo... baina denborarekin beti daude laguntzeko prest koadrilakoak, eta momentu askotan eurei esker egin dut aurrera eta hor ditut. Eurei eskerrak!

#### ► **Zer bizimodu egiten duzu?**

Ikastolara joaten naiz, baina tratamenduarekin nagoenean ezin naiz joan, defentsak baxu edukitzen ditudalako eta arriskua dut edozein katarro hartzeko. Gero katarro hori neumonia izan daiteke niretzako. Orduan etxetik etxeko laguntza ere jasotzen dut etxean, irakaste batzuk etortzen dira. Ez da berdina klaseko martxa. Kimioa hartu berri banago, gogorik ere ez dut izaten, ezta indarrik ere. Gero, bigarren astean edo kalera hasi naiteke jaisten, baina lokalera ezin naiz sartu erretzen duten lekuetan ezin naizelako egon. Ikastolara ere ezin naiz joan, jende asko dagoen lekuetan ezin naizelako egon. Neguan nahiko zaila izaten da irteeta, Elgoibarren ez dagoelako erre ezin den tabernarik.

#### ► **Denetik jan dezakezu?**

Ahal-ahal... edozer jan dezaket. Naturistarenean ibili nintzen. Analisisetan igaritzen da. Baina kimioa hartzean, batzuetan gazia eskatzen dizu gorputzak eta besteetan gozoa. Azkenean tratamenduan zaudenean gorputzak eskatzen dizuna jan behar duzu.

#### ► **Aspanovas-Gipuzkoa elkartearen zaudete. Zer da?**

Gipuzkoako haur minbizidunen gurasoen elkarte da. 1998an sortu zen eta hazten joan da, 89 familia hartzen ditu gaur egun. Baina denak ere ez daude elkartearen. Familiaren bizi kalitatea hobetzeko helburua du elkarteak. Minbizia zer den azaldu eta aurre egiteko laguntza ematen du. Gizarte laguntzaile bat dauka eta gaixoari eta familiari aholkuak ematen dizkie. Gero boluntarioak ere badaude, umeekin ekintzak egiteko eta distraitzeko. Boluntarioek larunbatetan eta tailerrak egiten dituzte. Abenduaren 15ean gabon festa prestatu du elkarteak umeentzako jolas eta ekintzekin. Festara mundu guztia dago gonbidatuta. Elkarteak web gunea hau du [www.aspanovasgipuzkoa.org](http://www.aspanovasgipuzkoa.org). Eta bertan hainbat informazio dago elkarteari eta minbizitari buruz. Elkarteari nola lagundu azaltzen da bertan.



*Pirritx eta Porrotx pailazoak liluratuta daude Anerekin. Argazkian, Mari Motots eta Ane.*

## Umorea, botikarik onena

Pirritx eta Porrotx pailazoek, Minbiziaren gaia ardatz hartuta, "Eskerrik asko" ikuskizuna estreinatuta berri dute. Izen bereko diskan Anek parte hartzen du. "Istorio erreala kontatu dugu, pertsonaia errealekin", azaldu du Pirritxek. Izan ere, Anek Anerena egiten du.

Lehen unetik, energia eta indar berezia transmititu zien elgoibartarrak. "Aneri aurpegira begiratuta, bi izar (bi begi distiratsu) eta ekia (irria) ikusi genituen. Pailazoarena egitera sartu ginen, eta berak egin zigun guri pailazoarena... Ane ez da gaixo bat, sendatzeko eta bizitzeko ilusioa duen pirata bat baizik. Berarengan inspiratzen dira aurtengo ikuskizuna eta Mari Mototsen papera".

Abenduaren 28ko saioan Anek parte hartuko du. Elkartearen inguruko informazioa eskainiko dute eta laguntza emateko modua azalduko da bertan. Pailazoek Aspanovas elkartearekin elkarlanean dihardute. "Zazpi urteko harremana dugu haiekin. Oso aberasgarria da gaixorik dauden haurrei tarte bat eskaintzea, haien indarra eta ilusioa gertutik ezagutzeko", gaineratu du Pirritxek.

## [ PROTAGONISTA ]



### Pedro Mari Egaña

Mendaroko XII. Kontsezio Azoka izan zen abenduaren 8an, eta bertan, Pedro Mari Egaña "Mintxeta" harrijasotzailea omendu zuten. Urte asko eman ditu kirolari elgoibartarrak harrijasotze munduan; harriak jasotzen lehendabizi eta entrenatzaile moduan ondoren. Garaikurra, txapel bat eta otar bat jaso zituen "Mintxetak" omenaldian. Gero, aurrekua dantzatu zuten omenduaren ohorez Mendaroko Goñati pilotalekuan, eta txalo zaparrada zaratatsu batek eman zion amaiera omenaldiari. Pedro Mari Egañak bihotzez eskerrak eman zien antolatzaileei.

## [ NOTIZIA ]

### Autotxoakeak eta patinatzeke izotz pista izango dira Gabonetako berrikuntzak

**B**i berrikuntza nagusirekin datoz aurtengo Gabonak: Elgoibarko Udalak autotxoakeak eta patinatzeke izotz pista jarriko ditu Plaza Txikian.

Patinatzeke pistak izotz sintetikoa izango du eta abenduaren 15ean hasi eta urtarrilaren 6ra bitartean egongo da martxan, goizez eta arratsalde. Ez da ohiko patinatzeke pista izango, izotzik ez duela baina sententzia berdina omen da. Ehun bota pare egongo dira eskura, eta txanda bakoitzean hogeita lagunek patinatu ahal izango dute, hamabost minutuz. Doan izango da.

#### Autotxoakeak abenduaren 21ean

Autotxoakeak ere patinatzeke pistaren ondoan jarriko dira hilaren 21etik urtarrila-



ren 6ra arte. 900 fitxa hartu ditu bere gain Udalak eta horietatik 861 ikastetxeen artean banatu ditu. Goizeko 10:00etatik gauerdiko 00:30era arte egongo dira martxan autotxoakeak eta bidaia bakoitzak 1,50 euro balio izango du.

## [ ZENBAKIA ]

# 9.400

Elgoibarko Udal Liburutegiak 9.400 euro inguruko dirulaguntza jasoko du 2008. urtean Eusko Jaurlaritzatik. Laguntza horren helburua Liburutegiko zerbitzuak hobetu eta berritzea da. Debabarreneko Eskualdeko Liburutegiek 58.000 euro inguru jasoko dituzte guztira.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Gabon giroa nagusitu da azken egunotan herriko kaleetan. Eguraldia hotza da, baina epeltasuna nabari da jendearen aurpegietan; egun hauetan zoriontasun sentimenduak tristurari irabazten dio. Denda guztiak apainduta daude, Olentzeroren panpinak balkoietan gora eta Gabonetako argiak piztuta. Aurten 95 argi jarri dituzte, iaiz baino bost gehiago. Auzo eta kaleak argiztatu egin dituzte eta zenbait lekutan, gainera, eskena desberdinak irudikatu dituzte argiekin. Urtarrilaren 6an itzaliko dituzte argiak datorren urtera arte.

## Denboraldi mugatuko OTA-TAO zerbitzua arautzeko makina berriak jarri dituzte



**U**dalak OTA-TAO zerbitzua arautzeko makina berria jarri du Plaza Txikian. Aparkatzeko baldintzak lehengo berberak dira, hau da, ordu eta erdiz bakarrik aparkatu daiteke bertan, baina makinaren funtzionamendua desberdina da. Lehen, autoa makina aurrean geratu eta txartela hartu behar izaten zen. Aurrerantzean, autoa aparkatu ondoren hartu beharko da txartela. Makinan bertan ageri dira tiketa ateratzeko jarraitu beharreko pausoak. Aparkatzeko agindua zantatu ondoren, matrikula sartzeko es-

katzen du makinak. Birritan baieztatu ondoren ateratzen da tikea eta bertan jartzen du noiz arte aparkatu dezakegun automobila. Behin aparkaldi muga pasa eta gero, bi orduz itxoin beharko da berriaz aparkatu ahal izateko.

### Upaiz Zaharra kalean ere OTA-TAO

Upaiz Zaharra kale berrian ere makina berdina jarri dute eta aparkatzeko sistema ere berbera da. Ingurune horretan berrogeita hamar auto ingururentzako lekua dago.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Euskararen I. Eguna gaur Danobat enpresan

Danobateko langileek Euskararen I. Eguna ospatu dute gaur. Herri kirolak izan dituzte lehenengo. Iluntzean trikitipoteoa egin dute eta gabean bertso afaria izango dute Gure Bide Elkarrean, Andoni Egaña eta Jesus Mari Irazurekin. Langileen artean euskararen erabilera bultzatzea da ekintza horren helburua. Duela zortzi urte jarri zuten euskara plana martxan eta urtero egiten dituzte langileak motibatuzeko saioak. Antolatzaileen esanetan, hizkuntza arautu eta bateratzeko irizpideak finkatu dituzte eta barmeko funtzionamendua euskaraz egiten dute. Danobateko langileen %78a euskalduna da.

### Merkatu Plazako zozketa

Merkatu Plazako dendariak 60 euroko bi txeke banatu dituzte. Candi Arregi eta Arantza Mujika izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute eta Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute. Zorionak!



### Elgoibarko Ahotsak

Elgoibarko Ahotsak Taldeak herriko emakumeekin bilera egingo du datorren eguaztenean, abenduak 19. Biler honetan aurrera begirako lan ildoak zeintzuk izango diren eta gatazka konpontzeko bidean Ahotsak taldeak bete behar duen papera eztabaidatuko dute, besteak beste. Iluntzeko 20:00etan izango da Kultur Etxean.

## 18/98 plataformak deituta lanuztea izan zen atzo




18/98 sumarioko auzipetuak atxilotu egin dituzte, tartean, Juan Mari Mendizabal elgoibartarra. Azaroaren 30ean atxilotu zuten bere etxean eta orain Madrilgo Alcalá-Meco espetxean dago. Sententzia abenduaren 10ean eman behar zuten, baina atzeratu egin dute, eta hilaren 19ra arte. Hori guztia salatuz, 18/98 plataformak deituta, ordubeteko lanuztea izan zen atzo. Eguerdiko 12:00etatik 13:00etara kontzentrazioa egin zen Plaza Handian eta herriko zenbait denda ere itxi egin zituzten.



## IRAKASLEARI azterketa

Matematika eta Natur Zientzien irakaslea

PEDRO IZAGIRRE



- 1 Txikitatik izan nahi zenuen irakasle?  
Bai, betidanik.
- 2 Ona zinen ikasketetan?  
Ez, aprobaten nuen eta nahikoa. Ez nintzen kristoren notak ateratzen dituen horietakoa.
- 3 Matematiketan zinen ona?  
Letretan nintzen ona.
- 4 Nolatan bukatu zenuen matematikako eskolak ematen?  
Hasieran hasi nintzen Heziketa Fisikoa ematen eta gero geratu nintzen Matematiketan.
- 5 Irakale ez bazina, zer izango zinateke?  
Aktorea.
- 6 Non?  
Goenkalen, adibidez. Estra moduan ere ariko nintzateke.
- 7 Ikasleekin klima aldaketaren inguruan mintzatzen zara?  
Bai, hitz egiten dugu. Garrantzitsua da kontu horren inguruan konzientzaturik egotea.
- 8 Aholkuren bat matematiketan fin aritzeko?  
Ez. Oso irakasgai prestijiosua da eta interes asko jartzen dute ikasleek.

## NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



IRUNE IRIONDO *ama*

1. Pelikulak eta telesailak.
2. Biak, bietan trebea izandakoa naiz.
3. Ane.
4. Gehiago bidaiatzea.
5. Ane eta Irati.
6. Mendia.
7. Entsaladak.
8. Paseatzea.



ANE SAN MARTIN *alaba*

1. Doraemon.
2. Biak, agurra ere atsegin dut.
3. Ni.
4. Itsasontzian ibiltzea
5. Leire.
6. Hondartza.
7. Makarroiak.
8. Futboleko aritzea.

## GALDERAK

1. Zein telebista saio duzu gustuko?
2. Musika entzun ala dantza egin?
3. Nor da bietan zintzoena?
4. Amets bat?
5. Izen bat?
6. Mendia ala hondartza?
7. Janari bat?
8. Zaletasun bat?

## TXIKI inkesta

### Olentzero ala Erregeak nahiago?

**Judith Iriondo**  
7 urte

Erregeak nahiago ditut opari gehiago ekartzen dizkidatelako, baina Olentzero ere atsegin dut.



**Markel Zabala**  
7 urte

Olentzero, nire etxera etortzen delako. Erregeekin aspertu egiten naiz bueltak ematen, opari bila joaten.



**Aitor Iranzo**  
6 urte

Olentzero nahiago dut opari asko ekartzen dituelako eta oso ondo portatzen delako jendearekin, nahiz eta ikatza ekarri.



**Amaia Eizagirre**  
6 urte

Olentzero atsegin dut lehenago etortzen delako eta jostailu berriekin jolasteko irrikitan egoten naizelako.



## LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna: .....

Izen abizenak: .....

Telefonoa: .....

**SARIA**

Elhuyar-ek eskainitako

"KAO: SUMENDIKO SEKRETUA" BIDEOJOKOA  
CD-ROMa



**AURREKOA:**



Irabazlea: **Leire Balada**

14 urtetik beherakoentzako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Garai honetan elkartasun mezuak zabaltzen dituzte iragarki eta hedabideek.

## Solidarioago bihurtzen gara Gabonetan?

**JESUS MARTIN**

Langilea

55 urte



“Solidarioago bihurtzen gara. Bihotza zertxobait biguntzen zaigu, elizara jende gehiago joaten da, eta gehienok dugu elkartasun nahi hori adierazteko beharra.”

**JOSE GOMEZ**

Erretiratua

67 urte



“Ona da solidarioagoa bihurtzea, nahiz eta urte osoan izan beharko ginateeken, ez Gabonetan bakarrik. Lagun hurkoarengan konfidantza gehiago izan beharko genuke.”

**MARI CARABALLO**

Etxeko andrea

52 urte



“Denetarik dago, baina gero eta egoista eta inbidiatsua goak gara, kontuan izanda ez gaudela betiko hemen. Ez da lehen bezala; ez da familia osoa elkartzen.”

**MARIFRAN ARRILLAGA**

Etxeko andrea

63 urte



“Nire ustez, solidarioagoa bihurtzen da jendea. Caritasekin ari naiz Gabonetan lanean eta harrera beroa izan dugu. Elgoibar herri solidarioa dela iruditzen zait.”

## [ BAI ala EZ? ]

Zure soldata 1.000 euro baino gutxiagokoa da?

**BAI %89**

**EZ %11**

“Bai. Oraindik gurasoen etxean bizi naiz eta konpontzen naiz nire soldatarekin, baina gauzak aldatzen ez badira sekula ez naiz independizatuko, ezinezkoa da.”

“Ez. Ikasketak bukatu eta lanean hasi nintzen duela lau urte eta 1.000 eurotik gora irabazi izan dut beti. Ez da ohikoa, suerte handia izan dut.”

Datorren asterako... **Alkoholemiaz gain, droga kontrolak egiten hasi dira.**

**Ondo ikusten duzu gidariei droga kontrolak ere egitea?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.

Talasoterapia  
**Zelai**  
Z U M A I A

Hilabete honetan 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Zumaiko Zelai Talasoterapian**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

[www.talasozeelai.com](http://www.talasozeelai.com)

# Ni Gipuzkoa naiz.

**Guztiok gara Gipuzkoa.**  
Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoa hobea lortzeko  
pausoak emango ditugu guztion artean. Plana aurrera egitea da.

**2007/2011 Kudeaketa Plana**



**GIPUZKOA**

zurekin, aurrera >>

**Pirritx eta Porrotx**  
eskerrik asko!

**Sarreraren prezioa:**  
Hurrek eta gazteek 3 euro, eta helduek, 6 euro

Abenduaren 28an, ostirala,  
Elgoibarko  
**Olaizaga kiroldegian**

16:30ean eta 18:30ean

Sarreraren salmenta  
(pertsonako, gehenez ere,  
4 sarrera salduko dira)

Arratsaldeko 18:30etik aurrera,  
Herriko Antzokiko leihatilan

16:30etarako **SARRERAK:**  
abenduaren 19an, asteazkena  
18:30etarako **SARRERAK:**  
abenduaren 20an, osteguna



Euzko  
Lehen  
Bata



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Euzko  
Jaurlarria

# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720  
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behe**

(San Andres pasealekutik)  
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



# ETXEBIZITZAK ERAIKITZEN SANTA KLARA 13 zkia.(Elgoibar)



- Duplex-a terrazarekin
- 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- Garaje eta trastelekuak

INFORMAZIOA eta SALMENTA: Pedro Muguruza Etorbidea, 9 - Behea (Elgoibar). Tif.: 615 758 480



## TEXTIL HOGAR · KOLTXOI DENDA LAGUNAK

### ESKAITZA MUNDIALA



KOLTXOI BISCOELASTIKOA

OPARIA

BURKO BISCOELASTIKOA  
FABRIKATIK ZUZENEAN!

80/90  
lehen 320€  
**440€**

105  
lehen 445€  
**535€**

135  
lehen 730€  
**599€**

150  
lehen 830€  
**685€**

\*2 M. LUZERAKO OHEAN %10 OHEANGO

### ESKAITZA MUNDIALA

**% 15**

**MASH® BEHERAPENA**

• BURKOETAN

• BETEGARRI NORDIKOETAN

• KOLTXOI ESTALIAK

(ikus mota eta neurri guztiak)



Atzerrekin gurea ez du  
Mash markaren alderantz

# LAGUNAK

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



**RENAULT**  
vehiculos comerciales

**Zuk beste sinisten dugu zure negozioan eta lagundu egin nahi zaitugu.**  
Azken belaunaldiko injezio zuzeneko motor potenteagoak.

Kangoo

Trafic

Master



**Autonomo edo enpresaria bazara gure ibilgailu komertzial guztietan:**

- %23ko deskontua\*.
- Finantziario baldintza bikainak\*.



\* Autonomo eta enpresarietarako eskaintza berezia 07-12-31 arte. Ezin zate besterik gertatu. Kuxien ziren modeluak: Kangoo Express Comfort, Traffic Furgoneta Labarra Normala eta altzuzako Master Furgoneta Erakina. Renault: ibilgailu komertzialen kategorian, karruak murriztu (1/100) 5,368 & 6,9ra. CO<sub>2</sub> lufoita (gr/km) 139& 235era.

**RENAULT**  
**AUTOBERRI**

ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRUN - TOLOSA



Santa Ana 4-6 20870 ELGOIBAR TLF.: 943 74 12 34  
mueblesiriondo@euskalnet.net

- Altzatzeko ohea + 150x190 koltxoia 1.250€
- 2 kaxoiko mesanotxea, laka-distiratsuduna 370€

**1620€**

## JAIOTAKOAK



**Elena Amaro  
Martin**  
[ Azaroak 7 ]  
Manuel eta  
Josefa



**Nuria Vazquez  
Crespo**  
[ Azaroak 7 ]  
Patxi eta  
Susana



**Beñat Iriondo  
Iriondo**  
[ Azaroak 22 ]  
Josu eta  
Ane



**Manex  
Iparragirre**  
[ Azaroak 28 ]  
Imanol eta  
Maider



**Nahia Aizpuru  
Ondarra**  
[ Azaroak 24 ]  
Gorka eta  
Ainhoa



**Alaitz eta Eider  
Araquistain Oñederra**  
[ Azaroak 19 ]  
A.M. eta Esther

**Ane Gomez  
Arrieta**  
[ Azaroak 6 ]  
Roberto eta  
Iratxe

**Markel Sanchez  
Müller**  
[ Azaroak 11 ]  
Manuel eta Maria  
Antonia

**Alaitz Amesti  
Santamaria**  
[ Azaroak 10 ]  
Jose Ignacio eta  
Olatz

**Alain Bastida  
Longarte**  
[ Azaroak 26 ]  
Iñigo eta  
Maria

**Alexander  
Suarez Guzman**  
[ Azaroak 20 ]  
Fernando eta  
Didiana

## HILDAKOAK

Javier Viteri • [ 69 urte ] • Azaroak 10  
Axier Landa • [ 31 urte ] • Azaroak 12  
Maria Larrea • [ 91 urte ] • Azaroak 20  
Maria Asuncion Garay • [ 76 urte ] • Azaroak 20  
Gregoria Elcoro Iribe • [ 93 urte ] • Azaroak 24

# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

## TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak.**

**Donostia eta  
probintziako  
erietxe zentroetan  
ere bai.**

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jaretzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidalite-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01

# GAZTIA NAIZ

elkarrizketa...

## Uxue Alberdi

AURKEZPEN GUTXI BEHAR DU HERRIAN UXUE ALBERDIK, ETA GERO ETA GUTXIAGO HERRITIK KANPO. BERTSOLARIA, KAZETARIA, IDAZLEA... BERAK DIOEN MODUAN, MILA TXOKOTAN SARTZEN DU MUTURRA. GIPUZKOAKO FINALEAN EZ DA TAULA GAINEAN BERTSOTAN ARIKO, BAINA BERTAN IZANGO DA BERE KIDEAK ANIMATZEN. GETARIA ALDEAN BIZI DA EGUN, BERE BIGARREN ELEBERRIA PRESTATZEN. BADU ZER KONTATU ETA ZER AMESTU ELKARRIZKETA HONETAN EGITEN DUENAREN ETA EZ DUENAREN INGURUAN.

**“Ezetz esaten ikasi behar dut, baina ez nintzen geldirik egoteko jaio”**



**Zertan zabilta edo, hobeto esanda, zertan ez zabilta?**

Nahiko bolada zoroa pasatzen ari naiz, egia da. Aurten urtea lasai hartzeko asmoa nuen: Joseba Jaka beka eman zidaten nobela bat idazteko, eta itzultzaile lana utzi egin nuen idazteko denbora hartzeko. Baina bertsoak uste baino pisu handiagoa hartu du nire bizitzan, irratian lanean ari naiz, eta beste mila txokotan sartzen dut muturra. Ezetz esaten ikasi behar dut, baina ez nintzen geldirik egoteko jaio.

**Kazetarioi esaten digute bertsolarien hizkerari kasu egiteko. Bertsolariek ere kazetariei jaramon egin beharko liekete?**

Bertsolari gehienok arreta handia jartzen diegu hedabideei. Edozein gairen inguruan abestea tokatu ohi zaigu, eta burua eguneratzea eskatzen du horrek. Baina bertsolari guztiak onak ez diren bezala, kazetari eskas ugari dago eta, kasu egin baino, arreta jarri behar da, hedabideek diotenarekin zertan bat egiten duzun eta zertan ez jakiteko.

**Nork esaten ditu egia gehiago?**

Nik gehiago sinisten dut subjektibitatean hedabideek saltzen duten objektibitatean baino. Esan nahi dut egia gehiago aurkitzen ditudala maiz literaturan egunkarietan baino.

# BARREN



Zifrak eta kazetaritzako bost galdera famatuak erantzunak ondo daude, baina ez dituzte hutsune guztiak betetzen. Badaude zenbait gauza emozioen bidetik baino azaldu ezin daitezkeenak. Kontua da objektibitatea ez dela existitzen: notiziak subjektuek egiten dituzte. Bertsolariek, idazleek, abeslariak, zinezuzendariak... ez dute errealitate osoa deskribatzen, baina errealitate puskek askoz ere barrurago sartzen dizkiote adi dagoenari. Hala ere, ezinbesteko tokia betetzen du kazetaritzak, batez ere, ondo egina denean.

## **Egia mozorrotzea gustatzen zaizu literaturan?**

Ni ez naiz egiaren jabe, beraz, ezin dut mozorrotu. Nik inporta zaidanari buruz idazten dut, eta gauzak nire ikuspegitik edo pertsonaia jakin batzuen ikuspegitik kontatzen ditut. Literaturak ez du egia paper gainean jartzen, baina gauza asko azaldu litezke ipuinetan, eta egia ez den arren, ez da gezurra.

## **Adio esan diozu Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari?**

Bertsolari moduan bai. Orain lagunak saioak entzun eta gozatzea tokatzen zait. Esperientzia ikaragarria izan da.

## **Gai-jartzaile bazina, zer galdetuko zenieke finalean?**

Ez da erraza gai-jartzaile lana, are gutxiago txapelketan. Talde oso bat ari da horretan lanean, eta burua astindu behar

izaten dute gai eta formulazio berriak aurkitzeko. Nik gizonak beren gizotasunaz gogoeta egiten jarriko nituzke, baina ez txapelketan: txapelketan zailagoa da benetan pentsatzen duzuna esatea.

## **Aulki batean egongo zara begira, zure nobelan bezala?**

Bai, baina Ilunbe epelxeago egongo dela espero dut!

**“Ez naiz egiaren jabe, beraz ezin dut mozorrotu. Inporta zaidanari buruz idazten dut”**

## **Kuxkuxeroa zara?**

Oso, oso, oso.

## **Atzerrian bizi eta gero, ez da gogorra egiten berriro etxera itzultzea?**

Badiira hiru urte Suediatik itzuli nintzela. Eta handik etorri ondoren ere bidaiatzen jarraitzen dut, askotan Euskal Herrian bertan. Bilbotik Getariara etorri naiz aurten, eta lan, jende eta toki berriak ezagutzen ari naiz etengabe. Gogorra? Ez,

pribilejiatua naiz, nahi dudanean kanpora joateko aukera dut, eta etxeak ere asko ematen dit.

## **Zelan Getaria aldean?**

Ederki, iisasoari begira.

## **Elgoibari hondartza falta zaio?**

Hondartza eta guzti, ez litzateke Elgoibar.

## **Oporretan non egon zara?**

Udan Indian izan naiz. Hilabeterako baino ez nintzen joan, eta itzultzeko gogoz gelditu nintzen. Oso herrialde interesgarria iruditu zitzaidan, baina handiegia eta zabalegia hain denbora gutxian ezagutzeko.

## **Bakarrik bidaiatu izan duzu?**

Tarteka bai, baina gehienetan lagunak batekin topo egin ohi dut gero: kanpoan dabilzan lagunak bisitatzera joan izan naiz sarri, antzeko bidaiak egiten ari den ezagunen batekin elkartu...

## **Europa Iparraldean badute neskek joera hori...**

Baita mutilek ere. Ohitura dago ikasketak amaitu eta urtebete-edo bidaiatzen emateko. Ezberdina da emakume izanda edo gizon izanda bidaiatzea, leku bakoitzak kode diferenteak ditu bi sexuentzat, baina polita da kode horiek deskubritzea, zu nola ikusten zaituzten sumatzea, zuk zenituen aurreiritziak puskatzea... Bidaiatzeak pila bat erakusten du, betiko egituretatik irten eta berriro hastea modukoa da.

## MANUEL SALEGI MUS JOKALARIA

# «Ni ez naiz Elgoibarko onena, baina bai gehien parte hartzen duena»



*Manuelek afizio ikaragarria dauka. Musean egiten du makina bat saio. Bederatzi txapel eskuratu izan ditu, baita hamaikatxo garaikur, txuleta eta bildots ere. Gipuzkoa eta Bizkaiko jokalarien artean oso ezaguna da. Mus arautegia beti erooten du poltsikoan, badaezpada, baina nahiago du atera behar ez izatea.*

▶ **Musean eginda txapel batzuk irabazi dituzu.**

Txapelak dauzkatzu bederatzi.

▶ **Paper horretan, zuk lortutako txapel eta sari nagusiak apuntatuta ekarri dizkiguzu. Zer jartzen du azpian?**

“Ni ez naiz Elgoibarko onena, baina bai gehien partizipatzen duena”. Ez dezala pentsatu norbaitek harroputza naizenik.

▶ **Egunero jokatzen duzu?**

Egunero.

▶ **Bazkalostean, ala?**

Laurak-lau 1'erdietatik sei 1'erdietara. Birtarte horretan. Jubilatuetan. Ostiraletan lehenago joan naiz, bost urtean edo, Eibarrrera, iluntzean. Hortik txuleta asko ekarri ditugu, eta langostinoak eta dena! Orain Ermura joaten naiz ostiral iluntzeetan. Handik bi hilabeteen ekarri ditut hamahiru kilo txuleta eta bakailaoa. Han ez dago txapelik, eta ezin atera!

▶ **Txapeldun, gaztetatik?**

Estreinakoa 1979an. Hasi eta berehalaxe atera genuen estreinato txapela. Hemen Elgoibarren hirugarren izan ginen eta hurrengoan Antzuolara joan ginen. Parejaz beteta zegoen: 168 pareja!

▶ **Zein da sekretua?**

Ezer ere ez. Karta etortzea.

▶ **Karta onei probetxua ateratzen ez dakitenak ere izango dira.**

Baita azkar disparatzen dutenak ere.

▶ **Zelakoa zara jokoan?**

Azkenetan, estututakoan, ordagoak eta bai. Baina bestela ordagoak karta onekin.

**«Keinu faltsuak behin prestatu genituen. Joan eta kortatu. Nahiago dut horrela»**

▶ **Bikotekidea ezagutzea garrantzitsua da?**

Bai. Baina ni beti aldatuta nabil, ez dit inork laguntzen. Lagunik onena zen Age-

rrer. Astigarribiakoa zen hori, baina gazterik hil zen.

▶ **Eta bikote barik gelditu zinen...**

Gero Gemika aldean izan nintzanean Txoperekin jokatzen nuen. Loiolarekin ere ondo konpontzen naiz, baina horrekin ezin da gabean joan, ez du gabez irfeten. Bitan joan gara Ermura, baina 11:00etan hasten da. Batean lau kilo txuleta atera genituen eta bestean bigarren postua...

▶ **Beti lagun berarekin ibiliz gero keinuak errezagoak izango dira ba.**

Jubilatuetan zeinu gabe egiten dugu. Eta gero kanpora joaten garenean... Zeinuekin kontrakoa eta bikotea ondo zaindu behar dira.

▶ **Keinu faltsuak erabiltzen dira?**

Batzuk egiten dituzte. Hor gabiltzanok harrapatu egiten dugu eta ez gara hain erraz erortzen, eta hurrengorako badakigu, naiz eta keiua harrapatu ez.

▶ **Eta zuk erabili dituzu?**

Ez. Joan ginen behin Arroara, lehengusu batekin faltsua egiteko. Joan eta kortatu. Bat ere ez! Nahiago dut horrela.

▶ **Musa zer da zuretzat?**

Jolas on bat.

## Pirritx eta Porrotx Olaizaga kiroldegan izango dira abenduaren 28an

**P**irritxek eta Porrotxek ezin zieten hutsik egin Elgoibarko umeei. Aurten ere, Euskara Batzordeak antolatutik, herrira itzuliko dira haur zein helduak alaitzera. Hasieran antzezlanaren Herriko Antzokian izango zela iragarri bazuten ere, jende gehiago biltzearen, ikuskizuna Olaizaga kiroldegan izango da.

Ohikoa den bezala, bi saio eskainiko dituzte abenduaren 28an pailazo ezagunek. Lehenengo saioa arratsaldeko 16:30ean izango da; eta bigarrena 18:30ean.

Bi saio horietarako sarrerak aurrez salduko dira Herriko Antzokiko leihatilan egun eta ordu hauetan: lehenengo saioko sarrerak, abenduaren 19an, arratsaldeko 18:30etatik aurrera; bigarren saioakoak, abenduaren 20an, arratsaldeko 18:30etatik aurrera. Pertsona bakoitzak, gehienez ere, lau sarrera eskuratu ahal izango ditu. Sarreraren prezioa ume eta gaztetxoentzat



(16 urtera arte) hiru eurokoa izango da, eta helduentzat, sei eurokoa.

Pirritx eta Porrotx pailazoek "Eskerrik asko" izeneko lana aurkeztuko dute. Minbiaren gaia jorratuko dute, eta Mari Motots bisitatuko dute ospitalean. Lagunak zein garrantzitsuak diren konturatuko dira, elkarri indarra emanez.

### Ilunabar literarioa gaur egingo dute idazle eskolako kideek

Irakurketa dramatikoa eta poesia errezitaldia dira Ilunabar Literarioaren muina. Idazle eskolako kideak izango dira protagonista Kultur Etxearen sotoan ekitaldian, 20:00etatik aurrera. Sarrera doan izango da. Udaberriaren Zumarra, udazken hasieran Irun eta neguan sartzeko Elgoibar aukeratu du idazten.com taldeak Ilunabar Literarioaren inguruan beriz biltzeko. Inaki Odrizolak idatzitako "Hondartza eta whisky" antzezlanaren irakurketa dramatizatu, poemak edo testu laburrak izango dira entzungai.

### Gabonetako bertso jaialdia hilaren 27an izango da

Elgoibarko Izarra Kultur elkarteak antolatuta, bertso emanaldi erakargarri batekin gozatzeko aukera izango dute bertsozaleek Herriko Antzokian, 22:30etatik aurrera. Amets Arzalluz, Xabi Paya, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Aitor Sarriegi ariko dira bertsoan. Etzi izango da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finala, eta sortu duen ikusmina eta gero, herriko bertso jaialdiak ere izango du zer eskaini.

## Black Heritage Singers-en gospel doinuak 21ean



Mississipiko gospel Taldea da Black Heritage Singers, Beltz Herentziaren Abeslariak. Herri Antzokian izango dira abenduaren 21ean, 22:15etik aurrera. Rhonda O'Neshia Chambers, Stephen M. Johnson eta Alisa Patrick dira kideak, Barry Bolden bateria-jolearekin eta Jerry Smith zuzendariarekin batera. Europan hainbat kontzertu eskainitakoak dira eta sona handia lortu dute euren ikuskizunek. Rhonda O'Neshia Jackson Musick sarietan abesbatzako bakarlari onena aukeratu zuten. Sarrerak aurrez salgai egingo dira Kultur Etxean.

### Jaiotzen XXI. lehiaketa bihar eta etzi izango da

Bihar eman beharko dute izena hamalau urtetik beherako elgoibartarrek, 11:00etatik 12:30era bitartean, parroiko lokaletan (trenbide aldeko sarreratik). Domekan, berriz, lehiaketaren unea izango da eta jaiotzak parroikiako arkupeetara eraman beharko dira, goizeko 11:00etarako. Sari banaketa 13:00etan izango da eta jaiotzen erakusketa Errosario kalean egingo da, Zubiaurre-Murua familiaren lokalean.

### Olentzeroren Gabonetako kalejira, 10:45etatik aurrera

Olentzero opariz beteta etorriko da herrira eta ume eta gazteek harekin egoteko aukera izango dute hilaren 24an 10:45etik aurrera, Madako parketik. Atxutxiamaika Aisialdi Taldea izango da ekimenaren antolatzailea.

**OLEG KORNEEV** XAKE JOKALARIA, LAU ALDIZ ELGOIBARREN TXAPELDUN

## «Jokalari oso onak xakea lagatzen ari dira ordainetan ez delako asko jasotzen»



*Korneev 1995az geroztik lehiatu da Nazioarteko Xake Txapelketan. Aitak erakutsi zion xakean jokatzeko eta egun xakean jokatzeaz bizi da Tenerifen. Moskun jaio zen, baina ez omen zaio gustatzen diruarekiko duten obsesio hori. Euskal Herrian gustura dago, Europako bere lekurik kuttunena ei da.*

▶ **Zer estimatzen duzu gehien lehiaketa honetatik?**

Gauza asko. Berezi Txapelketaren konstantzia: ez du data aldatzen, badakigu non eta nola jokatuko den. Gustatzen zait txapelketaren izaera: itxia izatean, arriska dezakezu, irekia denean berriz, demagun ehun bat jokalaria daudenean, sailkapenean hondora zaitzeko. Partida bat edo bi galduta ere, irabazteko aukera badago.

▶ **Maila altua du aurtengo edizioak?**

Bai, jokalaria onak daude.

▶ **Eta errusiar eskolaren mailak onaz izaten jarraitzen du?**

Ez, jokalaria oso onak xakea lagatzen ari dira. Hori ez da Errusian bakarrik pasatzen, mundu osoan baizik. Euskal jokalaria onenak ere laga zuen. Xake jokalariek esfortzu intelektual ikaragarria egiten dute eta ordainetan jasotzen dutena ez da hainbesteko. Eta asko beste zerbaitean lan egin beharra dute, eta gehiago irabazten dute askok, lan gutxiago eginda.

▶ **Errusiar jokalaria bat galtzera hezi gabe dago?**

Denetatik dago. Batzuk galtzen dutenean lasai geratzen dira beste batzuk ordea, historiko jartzen dira. Ezagutzen dut jokalaria on bat galdu eta zoruaren aurka kolpeka hasten dena.

▶ **Zein da zure bertute nagusia?**

Erabateko jokalaria naiz, eta Jaungo-

koari eskerrak, energia asko dut bukatu arte. Askok nekatu egiten dira lehiaketan zehar.

▶ **Kasparov politikara dedikatu da. Harritu zintuen?**

Ez, baina Europan neurritik kanpo baloratu dituzte bere aukerak. Ez du errusiar odolik eta, hortaz, hasieratik oposiziara zuzendua zegoen. Inoiz ez du boto nahikorik izango presidente izateko eta gainera oso pertsona egozentrikoa da. Bere negozio guztiak porrot egin dute. Kasparov begi onez ikusten dute Putin gorroto dutenek, baina Errusian Kasparoven pisu politikoa hutsaren hurrengoa da.

▶ **Karpov bizirik al dago?**

Nola edo hala jarraitzen du xakean, modu apalean, askotan finalera heldu gabe. Karpov ere politikara dedikatu izan da baina udal kontuetan.

▶ **Xakeak politikarekin lotura zuzena duela uste duzu?**

Bai. Ezkerreko gobernuak xakea gehiago babesten dute eskuinekoek baino. PPK agintzen duen autonomia erkidegoetan ez da nazioarteko lehiaketa bakarria ere jokatzeko.

▶ **Euskal Herrian etxean moduan zaude?**

Etxean bezala ez, baina Europan gehien gustatzen zaidan lekua da. Jendea irekia da hemen, baina aberria, aberria da.

«Kasparovek ez du errusiar odolik eta oposiziara zuzendua zegoen»



## KIROL SARIAK

### Kirol federatuaren sariak banatuko dira Kultur Etxean abenduaren 20an

Udal Kirol Patronatuak herriko klubekin duen lotura estutu nahi du eta horretarako bultzatu du Kirolari Federatuaren II. Gala. Elgoibarren dauden hamazortzi taldek parte hartuko dute eta baihoitzaren esku dago kirol horretan nabarmendu den langile, babesle edo zuzendari baten lana aipatzea. Abenduaren 14ra arte zuten euren hautagaiaren berri emateko epea. Bide batez, zergatik aukeratu duten argudiatu behar zuten. Gala abenduaren 20an izango da Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera.

2003an izan zen aurreko ekitaldia eta bertan saritu zituzten Markel Bergara, Egoitz Mora, Iban Gonzalez, Hector Garrido, Haritz Iriando, Aitos Osoro, Mikel Leon, Joseba Sagasta, Aitor Rementeria, Jose Gurutxaga, Aritz Monasterio, Abel Heman-



dez, Eneritz Aizpitarte, Martin Lopez de Larraizar eta Iñaki Badiona. Aurten hiru talde gehiago batu dira sariketa horretara, Barsate Futbol Aretoa, 40-16 Tenis Taldea eta Wing Tsun taldea, hain zuzen.

### Egoitz Morak Miereseke VII. Judo Txapelketan irabazi du



Egoitz Morak bere nagusitasuna erakutsi zuen pasa den astebukaeran Mieresen jokaturako txapelketan. 90 kilo azpikoan asturiar aurkaria gainditu zuen finalean. Euskal selekzioarekin joan zen Asturias, Kantabria, Gaztela Leon eta Valentziako ordezkariak bildu zituen lehiara. Mora forma onean dago. Oreretan jokaturako Euskadiko txapelketan, senior mailan irabazi zuen Miguel Manuel bizkaitarraren aurka fin aritu ondoren. Hurrengo hitzordua urtarrilaren 13an izango du Espainiako Txapelketaren sektore fasean.

### Morkaikoren argazki lehiaketako lanak Kultur Etxean ikusgai

Abenduaren 10ean bukatu zen Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatutako mendiko argazkien lehiaketan lanak entregatzeko epea. Kultur Etxeko sotoan bilduko dituzte aurkeztutako lan guztiak abenduaren 17tik 21era bitartean, 19:00etatik 21:00etara. Bisitariak argazkiak ikusteaz gain, Ikusleen Saria emate-

ko aukera ere izango dute. Epaimahaia Ongarri Kultur Elkarteke kideek osatzen dute. Morkaiko Mendizale Elkarteak, urtero, abenduan antolatzen du argazki lehiaketa. Argazkiok mendiarekin zerikusia izan behar dute nahitaez eta digital ki zein paperean ateratakoak izan daitezke.

## [ EMAITZAK ]

### ARETO FUTBOLA

Lagun Onak 0 - Kenci 5 (Euskal Ligak)

### IGERIKETA

50m. libre neska (benjaminak)

Nagore Rodriguez 50"22

Ane Almenara 57"25

Elsa Astigarra 57"46

50m. libre mutilak (benjaminak)

Danel Legorburu 45"81

Gorka Iriando 49"89

Imanol Albizu 52"66

200. bular neska (alebinak)

Ane Espilla 3'42"60

50m. tximeletak neska (alebinak)

Ane Espilla 47"80

50 m. tximeletak mutilak (alebinak)

Aitor Santaren 45"77

100 m. tximeletak mutilak (alebinak)

Aitor Santaren 1'58"25

## [ AGENDA ]

### ARETO FUTBOLA

Zapata, 15 Olaizagan

13:00 Elgoibar - Euskalduna (Jubenilak)

15:45 Kenci - Armentia (Euskal ligak)

### ESKUBALOA Kiroldegian

Zapata, 15

9:00 Calderria Lili - Urola (Inf. nesk)

10:00 IMH Elgoibar - Erialdea (Kadete neska)

11:30 H. Txariduna - Pulpo (Infantil mutilak)

17:30 Pneumax - Gaztelueta (Jubenil mutilak)

18:45 Tecnomeca - Gaztelueta (Kadete mutilak)

20:00 Cometel - Arrasate (Jubenil neska)

Domeka, 16

9:00 Bankoa - Zarauz (Infantil mutilak)

10:00 C. Astigarra - Arrate (Infantil neska)

11:00 Tecnifuelle - Zuazo (Senior neska)

### PILOTA

Barixakua, 14

21:15 Lagunak - Mundarro (Kad. 2.)

21:15 Lagunak - Aurrera Saiatz 2 (Jubenilak 1.)

21:15 Lagunak - Usurbil (Senior 1.)

## San Silvestre krosa

Lasterketa Plaza Handian hasiko da abenduaren 31n, 17:00etan. Urgazik ibilbidea aldatu behar izan du aurten, jende asko kexatu baitzen iaz Albituriko aldapa gogorregia zela-eta. Lasterketa herrikoia izango da. Parte hartzen dutenek ez dute ezer ordainduko eta dortsalik eta saririk ere ez da egongo. Bost kilometro inguruko ibilbide erraz eta eza-gunean ahalik eta elgoibartar gehien biltzea da krosaren helburua.

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

▶ Pisu salgai Pedro Migel Urruzuno kalean. Partikularretik partikularra. Prezio onean.

☎ **666496659**

▶ Pisu salgai Santa Ana 38n. 3 logela, aldagela, komuna, sukaldia, egongela. Berritua, altzariekin. ☎ **669006421**

▶ 45m<sup>2</sup>ko apartamentua salgai erdialdean. Logela bat, sukalde amerikarra. Oso argitsua, bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpora, trastero handia aparte.

☎ **678542436**

▶ Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukalde berritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Fatxada eta igogailua berritua. Altzariekin saltzen da.

☎ **628115677**

### ALOKAIRUA

▶ Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo inguruetan.

☎ **646844513**

▶ Bikote batentzat etxebizitza liluragarria alokatzen da Elgoibarko erdigunean. Erreferentziak eta abalak eskatzen dira.

☎ **605766911**

▶ Etxea hartuko genuke Elgoibarren. Asko jota 450 euro hileko.

☎ **658164787**

▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo inguruetan.

☎ **652766131**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

▶ Garajea salgai kiroldegi aurrean. Prezio onean. ☎ **696029312** (Juan. 18:00etatik 21:00etara)

▶ Garajea alokairuan Pista Beltzean. Sarbide erraza. 60 euro. ☎ **659386403**

▶ 24m<sup>2</sup>ko garaje itxia alokatzen da Urasandin. ☎ **943741527**

▶ Marradun garajea salgai Urasandin, Deba kalean. Madalako zubitik gertu.

☎ **658735769**

▶ Garajea alokairuan Urasandin, Kalamua kalean.

☎ **665755010**

## [ AUTOAK ]

▶ Opel Astra, 1600 zilindrakoa, 16 balbula-100 cv. Egoera onean. 9 urte. 91.000 kilometro. 5000 eurotan ☎ **650640245**

▶ Opel Monterrey, 4x4, 3 ate, atzean engantxea erremolkerako, motorra 3.100 eta diesela. Egoera onean. ☎ **646711421**

## [ BESTELAKOAK ]

▶ Sukaldea salgai, butanoko lau su ditu. Labea, bonbona eta guzzi. Altuera neurriak: 88x48x83 ☎ **639390808**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea dendan lan egiteko prest. Bitxi-dendan esperientzia.

☎ **658764984** (Begoña)

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. ☎ **6284058270**

• Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko prest.

☎ **606169667**

• Ingeles klaseak ematen dira. Ingeles komertziala, maila guztiak.

☎ **696964069**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu, sukaldari, garbitzaile edo kamarera lanetarako prest.

☎ **943740367**

• Emakume bat eskaintzen da edozein garbiketara lan egiteko edo adinekoak zaintzeko.

☎ **678939382**

• Arratsaldez edo gabez lan egingo nuke. Umeak zainduz, garbiketarak... ☎ **671476869**

• Neska bat lan egiteko prest. Paperak ditut. ☎ **610615116**

• Mutila erakuntzan lan egiteko prest. Zulagailuarekin esperientzia.

☎ **678022125**

• Emakumea garbiketara lan egiteko prest. ☎ **943742575**

• Zerbitzari bat behar da astebukaeretak, Mendaroko taberna kafetegi batean. ☎ **943030150**

• Neska eskaintzen da ileapaindegi laguntzailerako.

☎ **650280670**

• Emakumea eskaintzen da adineko bat zaintzeko edo garbiketarako. ☎ **638338816**

### ESKAINITZA

• Administrazio laguntzaile bat behar da. ☎ **685755799**

• Gasolindegian astebukaera eta jai egunetan lan egiteko lagun bat behar da. ☎ **943740241**

• Rock musika taldeak baxu-jolea behar du. Sonic Youth eta Pixies taldeen tendentziak.

☎ **628095651**

• Zubacor enpresarako tailer-nagusia behar da. Curriculum Elgoibarko 50 posta-kutxara bidali.

• Kamareroa behar da barran eta mahaiak zerbitzatzen lan egiteko.

☎ **635751642**

• Kamareroa behar da barran eta mahaiak zerbitzatzen lan egiteko.

☎ **635751642**

### ABISUAK

• San Inazio kalean txamarra bat aurkitu dut. Udaltzaingoa dago.

• Sergio Tacchini markako betaurrekoak agertu dira Gloria okindegiaren aurrean. Jabea bertatik pasada dila.

• Nokia markako segapotoa galdu dut Elgoibarren. Sarituko da.

☎ **657722836**

• Kolore urdineko txamarra galdu dut, ihes egin zidan balkoiatik.

☎ **679618078**

• Sigma inguruan betaurrekoak galdu nituen kaxa barruan. Berdeak dira. ☎ **669630987**

• North Face gore-tex txamarra Arregitorre pasealekuan aurkitu da. ☎ **699913176**

## ESKERTZA

2007ko azaroaren 26an hil zen

**Rufina Iurretagoiena Elustondoren** sendiak

bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak

hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## [ZORIONAK]




▶ Zorionak, **Ifigo**, asteazkenean 2 urte egin zenituen-eta. Muxu handi bat familiakoen partez.



▶ Zorionak, **Naroal** Patxo handi bat familiakoen eta bereziki June eta Paularen partez.



▶ Zorionak, **M<sup>re</sup> Jesus**, 20an urteak egingo dituzulako! Julian senarra eta Garazi eta Iruneen partez.



▶ Zorionak, **Ibon**, 9 urte egin zenituelako abenduaren 6an, zure familia eta bereziki Naiaren partez.



▶ Zorionak, **Roke**, bihar 6 urte beteko dituzulako Sara eta familiako guztien partez.



▶ Zorionak, **Naroa**! Zure 5. urtebetetzean ondo pasatu zenuelakoan, muxu asko familiaren partez.



▶ Zorionak, **Iker Vazquez**, 3 urte bete zenituelako abenduaren 10ean!



▶ Zorionak, **Haritz**, abenduaren 3 urteak egin zituen-eta, familiakoen eta bereziki Enekoen partez.



▶ Zorionak, **Iker Niebla**, abenduaren 3an 8 urte egin zituelako, familia guztiaren partez.



▶ Zorionak, **"kanpeon"**, ondo pasa eta patxo handi bat etxekoan partez.



▶ Zorionak, **Jon**, igandean zure urtebetetzea izango delako, aitta, ama eta guztien partez oso ondo pasa.



▶ Zorionak, **Ihart**, 10 urte egin dituzulako, patxo mordo bat zure aitaren eta amaren partez.



▶ Zorionak, **Iskander**, etzi urteak egingo dituzulako, familiakoen partez.



▶ Zorionak **Maidere** urtebete egin duzulako, aitiata, amama eta osaba, izeba eta familiakoen partez.



▶ Zorionak, **Ixaso**, igandean 12 urte beteko dituzulako Tito, aitiata Jose Mari eta familiakoen partez.



▶ Zorionak, **Eneritz!** 12 urte beteko dituzulako, familiakoen eta bereziki Harkaitz eta Maidarren partez.



▶ Zorionak, **Lidia**, hilaren 30ean 8 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiakoen partez.



▶ Zorionak, **Uxue**, 3 urte handi bete dituzulako, etxeko denon partez.



▶ Zorionak, **Nagore**, 5 urte egin dituzulako, etxekoan partez.



▶ Zorionak, **Cristina**, abenduaren 6an 8 urte egin zenituelako, etxeko guztien partez.



▶ Zorionak, **Amaia**, 12 urte egin zenituelako, familiakoen partez.



▶ Zorionak, **Aimar**, hilaren 27an 6 urte egin zenituelako, zorionak anaia Manez eta gurasoen partez.



▶ Zorionak, **Nerea**, 6 urte egin dituzu eta, etxeko guztien partez.



▶ Zorionak, **Coro**, kateko zure lagunaren partez.



▶ Zorionak, **Markel**, gaur 5 urte egiten dituzu eta. Muxu bat familiakoen partez.



▶ Zorionak, **Gorka**, abenduaren 6an 5 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



▶ Zorionak, **Maier**, atzo urteak egin zenituelako, familiako guztien partez.



▶ Zorionak, **Julen**, bihar 9 urte egingo dituzulako, etxekoan partez.



▶ Zorionak, **Halef**, abenduaren 9an 12 urte egin zenituelako, zure familiaren partez.



▶ Zorionak, aitaxo **Manolo**, asko maite zaitudalako. Andrea.

# Zerbitzuak



## [ OKINDEGIA ]



16 igandea DOÑA MERCEDES



## [ FARMAZIAK ]

- 14 **GUARDIA** 24 ORDUZ
- 15 Ibañez
- 15 Bidasolo
- 16 Bidasolo
- 17 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 18 Fernandez
- 19 Yudego
- 20 Zabaleta
- 21 Etxeberria (*Erosario*)

\* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**  
**IBAÑEZ**  
Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84

## [ 14 BARIXAKUA ]

**18:30 DIPLOMA BANAKETA**  
Txandakako ingeniartzako diploma banaketa IMHn.

**20:00 ILUNABAR LITERARIOA**  
Iñaki Odriozolaren "Hondartza eta whisky" antzezlanaren irakurketa dramatizatua egingo dute. Kultur Etxeko sotoan

**21:00 MAHAI INGURUA**  
Gaztainerre + Bideo emanaldi-eztabaida (Nork nori zor) + kontzertua Stockholms taldearekin. Gaztetxean.

## [ 15 ZAPATUA ]

**13:00 KONTZENTRAZIOA**  
"AHT gelditu herriari galdetu" lemapean. Plaza Handian.

**16:00 AUTOBUSA**  
Arrasaten egingo den AHTren kontrako manifestaziorako autobusa. Gaztetxe aurrean.

## [ 16 DOMEKA ]

**11:00 JAIOTZEN LEHIAKETA**  
Elizako arkupeetan. Meza ondoren egingo da sari banaketa.

**16:00 ESKOLA KIROLEKO XAKE TXAPELKETA**  
Kultur Etxeko sotoan. 6 - 14 urtekoentzat.

**20:30 NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETAKO SARI BANAKETA**  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

# Zorionak



► Zorionak, **Maria eta amama Jesusari**, familia guztiaren partez, bereziki aitita Jose Mari eta Aneren partez.



► Zorionak, **Danel eta Sarai**, 3 eta 9 urte betetzen dituzuelako, hilaren 11an eta 30ean, hurrenez hurren, muxu asko familiaren partez.

## [ 17 ASTELEHENA ]

**17:00 IPUINKONTALARIA**  
Miriam Mendoza ipuinkontalariak bi saio eskainiko ditu Liburutegian.

**19:00 MORKAIKOREN ERAKUSKETA**  
Argazki lehiaketan parte hartu duten lanak jarriko dira ikusgai. Kultur Etxeko sotoan. Hilaren 21era arte.

## [ 19 EGUAZTENA ]

**19:00 JANTZI TRADIZIONALEN ERAKUSKETA**  
Haritz EDTk antolatuta, urtarrilaren 3ra arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**20:00 AHOTSAK TALDEAREN BILERA**  
Herriko emakumeentzako. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## [ 20 EGUENA ]

**14:45 PILAR IKASTETXEKO GABONETAKO JAIALDIA**  
Pilar Ikastetxean.

**19:00 IKASTOLAKO GABONETAKO JAIALDIA**  
Herriko Antzokian.

**19:00 KIROL SARIEN BANAKETA**  
Kirol Federatuaren sariak banatuko ditu Kirol PAtornatuak. Kultur Etxean.

**20:00 PARROKIAKO JAIOTZA**  
Parrokiako jaiotza mekanikoaren inaugurazioa. Parrokiako lokalean.

## [ 21 BARIXAKUA ]

**20:00 MUSIKA ESKOLAKOEN KONTZERTUA**  
Musika Eskolako ikasleen kontzertua Parrokiarian.

**22:15 GOSPEL KONTZERTUA**  
"The Black Heritage singers" taldearen kontzertua. Herriko Antzokian

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN



«Leones por corderos»  
14, barixakua: 22:15  
15, zapatua: 19:00-22:15  
16, domeka: 19:00-22:15  
17, astelehena: 21:30  
"Betizu eta urrezko zintzarria"  
16, domeka: 16:30  
«Naturaleza muerta» (Z.K.)  
20, eguena: 21:30

**EIBAR, UNZAGA**

«El triunfo de un sueño»  
14, barixakua: 19:30-22:15  
15, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
16, domeka: 17:00-19:30-22:15  
17, astelehena: 19:30-22:15  
18, martitzena: 19:30-22:15  
19, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

# Idama



Iraileko irabazlea:  
**AINHOA  
JUARISTI**

Abenduko saria:  
**AURPEGI  
TXOKOLATERAPIA**

Antonio Arrillaga, 6-8 beheka (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26

## S I N O P S I A K

### «Leones por corderos»

Zuzendaria: Robert Redford  
Antzezleak: Robert Redford, Meryl Streep, Tom Cruise, Michael Peña  
Afganistango guda amaitu ondoren, hainbat pertsonaren istorioak kontatzen ditu pelikula honek: azken estrategiak antolatzen ari den politikaria (Tom Cruise), albiste agentzia bateko kazetaria (Meryl Streep), bere ikaslearen bizitzako norabidea aldatu nahian dabilen katedraduna (Robert Redford) eta armadan sartu ziren bi mutil gazte dira filmeko protagonistak.

# Atzera hegira



**1959**. urteko erretratu zahar hau **Javier Gurutzagak** laga digu. Baltasar Pilotazale Elkartek antolatutako binakako pilota txapelketan ateratako argazkia da. Plaza Handian jokatzen zen txapelketa. Erretratuan ageri den koadrila oso ezaguna zen Elgoibarren, "Jan da lo" izena zeukan. Talde horretan ikusten ditugun gazte asko C.D. Elgoibar, Elgoibar Txiki eta Fleje futbol taldeko jokalaririk izan ziren. Gogora ditzagun zeintzuk diren: Goian, ezkerretik eskumara: **Luis Mari Iriondo (†)**, **Javier Gurutzaga**, **Javier Estarta**, **Manuel Esnaola**, **Migel Anjel Garate**, **Guillermo Gorostiza (†)**, **Migel Anjel Konde**, **Jesus Arakistain**. Bigarren ilaran: **Juan Jose San Martin (†)**, **Jesus Mari Barrenetxea**, **Javier Saez**, **Juan Mari Artetxe (†)**, **Jose Inazio Elkoro-iribe**, **Francisco Urbietta (†)**.

consultig, s.l.



**ar'oa**

**Komunitateen administraritza**

Trenbide kalea, 21 zkia.- behea  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 03 02 75 - Fax.: 943 74 82 42  
mjolivares@euskalnet.net

*Utzi albo batera komunitatearen kudeaketak dakartzan zeregin guztiak, eta goza ezazu zerbitzu tekniko-juridiko integralaz.*

*Gure eskaintza:*

- Batzorde antolaketak.
- Akten idazketa.
- Bilerak eta komunitateko liburura transkripzioa.
- Lehendakariarentzako aholkularitza.
- Kobrantza kudeaketa, izapidetzeak, diru-laguntza tramitazioak,...

***Utzi zure komunitatearen kudeaketa profesionalen eskuetan!!***



660 52 25 87  
943 74 88 43

KU KOLOREA

- **BARNE DISEINUA**
- **MARGOLARITZA TEKNIKA DESBERDINAK**
- **IZFUKUAK**
- **FATXADAK ZAHARBERRITZEA**
- **OHALTZA MUGIKORRA**



GOSPEL KONTZERTUA  
**BLACK HERITAGE SINGERS**  
*(Mississippi)*



Abenduak 21, ostirala  
22:15ean  
Herriko Antzokian



Kultara salla



Foru Abundia



Eusko Jaurlaritza



SAREA